


**Ezpata-lore ▶**

*Gladiolus communis*  
Lore arrosa ikusgarriek eta ezpata-formako hostoek nahastezina egiten dute. Genero honek, hibridazio bidez sortutako landare apaingarriak barneratzen ditu.

ES *Gladiolo*  
EN *Cornflag*

**BIZ** UOMAMEUAIUAA




**Egur belarra ▶**

*Lythrum salicaria*  
Eremu hezeetan agertzen den landarea da, 1-2 metro arteko altuera hartu dezakeena. Infloreszentzia handiak ditu, lore arrosa bizi ugariekin. Munduko hainbat tokitan inbaditzailea da.

ES *Arroyuela*  
EN *Purple Loosestrife*

**BIZ** UOMAMEUAIUAA



**Piramide-orkidea *Anacamptis pyramidalis* ▲**

Orkidea ugarienetako bat da. Infloreszentziak piramide-forma hartzen du (*pyramidalis*).

ES *Orquidea piramidal* EN *Pyramidal Orchid*

**URT** UOMAMEUAIUAA



**Gaitun txikia ▶**

*Sanguisorba minor*  
Errosazeo berezia da, glomeruluetan taldekatutako lore oso txikiak dituelako. Gainera, loreek ez dute petalorik, haizearen bidez polinizatzen baitira (anemofiloa).

ES *Pimpinela menor*  
EN *Small Burnet*

**BIU** UOMAMEUAIUAA



**◀ Montpellierko astragaloa**

*Astragalus monspessulanus*  
Loreak hirusta gorriaren antza hartu dezake, baina hostoek nahastezina egiten dute. 10-12 foliolo txikiz osatutako hosto luzeak ditu. Leka gorria garatzen du, luzea eta zilindrikoa.

ES *Garbancillo de monte*

**UOMAMEUAIUAA BIZ**



**◀ Goilora *Epilobium hirsutum***

Genero bereko beste espeziengatik bereizgarria egiten duena, zurtoin eta hostoetako ile ugariak dira. Baso-ortalan agertzen da batez ere.

ES *Hierba de San Antonio*  
EN *Great Willowherb*

**UOMAMEUAIUAA BIZ**



**◀ Kuku praka**

*Digitalis purpurea*  
Biurteko landarea da, lehenengo urtean hosto erroseta agertzen da eta bigarreanean lore tubularrez osatutako infloreszentzia. Loreak motodunak dira barrutik.

ES *Dedalera*  
EN *Purple Foxglove*

**UOMAMEUAIUAA BIU**



LANDA GIDA TXIKIA

Toni Llobet · Yoana García eta Ana Irene García

# Euskal Herrian ezagutu beharreko 101 landa-eremuko lore



**aranzadi**  
zientzia elkarte



# Euskal Herrian ezagutu beharreko landa-eremuko 101 lore

Gidaliburu honetan, Euskal Herriko landa-eremuko loreen -habitat erruderal eta soroak- hautaketa adierazgarria erakusten da, lurralde osoko ikusgarrienak eta arruntenak. Talde bakarra baztertu da, ugaria den arren lore apalak dituelako: gramineoen taldea.

Hemen deskribatzen diren loreetako asko, edozein ibilbidetan topatuko dituzue, bai ingurune naturalean, bai hirigunetik hurbil, bai nekazaritza-lurretan. Horietako batzuk urte osoan zehar ikusiko ditugu, eta beste batzuk, berriz, epe laburrean bakarrik. Espezie inbaditzaile batzuk ere barneratu dira, horiek ezagutu eta gure ekosistemetan eragin dezaketen kalteez jabetzeko.

Loreak landareen atalik ikusgarrienak dira eta udaberria iristean gure paisaiak koloreztatzen dituzte. Forma eta kolore asko hartzen dituzte, eta, haien edertasunari esker, intsektu ugari erakarri eta elikatzen dituzte: erleak, tximeletak eta kakalardoak. Horregatik guztiagatik, gida honetako 101 espezieak loreen kolorearen arabera antolatu dira, gida hau edozein erabiltzailearentzako baliagarria izan dadin.

Landareak ezagutzea, hauek balioan jartzeko lehen urratsa da, eta horretara gonbidatzen zaituztegu!



Testu eta espezie aukeraketa: Botanika Saila (Aranzadi Zientzia Elkarteak)  
 Ilustrazioak: Toni Llobet  
 Diseinu grafikoa: Lluc Julià eta Toni Llobet  
 Maketazioa: Toni Llobet eta Clara Cortadelles  
 Itzulpena: Yoana García, Ana Irene García eta Mikel Etxeberria  
 Lege-gordailua: DL T 294-2024

## LANDARE MOTA

**URT Urtekoa**, bizi-zikloa osatzeko urtebete baino gutxiago behar du  
**BIU Biurtekoa**, bizi-zikloa osatzeko urtebete baino gehiago baina bi urte baino gutxiago behar ditu

**BIZ Bizikorra**, bi urte baino gehiago bizi da. Lur azpiko organoek urtaro gogorretan irauten dute

**IGO Igokaria**, beste landare edo material batzuei eutsita hazten da

**AZP Azpizurkara**, gogorrak eta iraunkorrak izan daitezkeen zurtoinekin

**FENOLOGIA Loraketa garaia urtean zehar**

**U** Loreekin **U** Lorerik gabe

## UGARITASUNA

Gidako espezie guztiak ohikoak dira beren ingurunean lurralde honetako zati handi batean, tokiko ezberdintasunak egonik lurzoruaren erabileraren arabera.

## HABITATAK

- Baso orla**
- Arroka**, inguru harritsuak eta hormak
- Lugorria**
- Urteko landareen larre lehor** eta terofitikoak
- Belardi gutxi gorabehera hezeak**, sega-belardiak eta larre-belardiak
- Belarkaren soroak**, zereal- eta bazka-soroak
- Baratzak**
- Belardi erruderalak**, soroen eta bideen ertzetakoak, zurezko laboreen artean —mahastiak, fruta-arbolak, olibadiak...—

## ESTAI BIOKLIMATIKOAK

- Barnealdeko eta kostaldeko lautadak, behe-mendia
- Estai menditarra
- Goi mendia

## ERABILERA

- Sendabelarra
- Toxikoa
- Jangarria
- Usaintsua

## ESCALA

Espezie guztiak gutxi gorabeherako eskalan daude orri bakoitzean, nabarmen handiagoak diren landareen kasuan izan ezik, horiek eskala txikiagoan agertzen baitira -zirkulu baten aurrian-. Loreen xehetasuna, profilatutako zirkulu baten barruan erakusten da.

Argitaratzailea:

**Lectio Ediciones**

Kolaboratzailea(k):

**aranzadi**  
zientzia elkarteak

*Toni Llobet*

Thema: WNP / 1DSE-ES-Q / 1DSE-ES-R



## LORE MOREAK

### Ezkila-lore glomeruluduna ▶

*Campanula glomerata*  
 Kanpai formako lore moreak taldekatuta agertzen dira. Metro erdi bat izateraino hazi daitezkeen landarea da. Batez ere, baso-orla eta belazeetan agertzen da.

ES *Campanilla*  
 EN *Clustered Bellflower*

URT UOMAMEUAIUAA



### Girtengorria ▶

*Ajuga reptans*  
 Landare txiki eta konpaktua da. Hosto oposatuak ditu eta loreak hauen artean kokatzen dira bertiziloetan. Sendabelar bezala erabili izan da digestio arazoak sendatzeko.

ES *Búgula* EN *Bugle*

URT UOMAMEUAIUAA



### Brunela arrunta ▶

*Prunella vulgaris*  
 Nahiko landare laxoa da. Estoloi luzeak garatzen ditu eta bertatik ale berriak garatu daitezke. Loreak buruxka dentsuetan antolatzen dira. Beherakoa sendatzeko erabili izan da.

ES *Consuelda menor*  
 EN *Common Self-heal*

BIZ UOMAMEUAIUAA




### Balsamoraa ▶

*Muscari neglectum*  
 Txikia eta bakartia, arrunta da labore eta larreetan erraboiaren hedapen begetatiboagatik. Loreek luku dentsua osatzen dute.

ES *Nazarenos* EN *Common Grape Hyacinth*

URT UOMAMEUAIUAA




### Orkidea purpura

*Orchis purpurea*  
 Errosetan garatzen diren hostoak ditu eta bi tuberkulu erreserba organo modura. Infloreszentzia handia garatzen du, 13 cm luze izan daiteke eta lore more-zuri ugariz osatzen da.

ES *Orquídea de la dama*  
 EN *Lady Orchid*

UOMAMEUAIUAA BIZ



### Kuku belarra

*Aquilegia vulgaris*  
 Udaberrian oihanpe eta bide bazterrek kolore morez estaltzen ditu. Ale bakoitzak 16 lore arteko lukuak osa ditzake. Loreek forma berezia dute, eta, oro har, behera begira egoten dira.

ES *Aguileña*  
 EN *Common Columbine*

UOMAMEUAIUAA BIZ



### Murruntza

*Cymbalaria muralis*  
 Herrestaria den landare hau oso ondo moldatzen da zirrikietan bizitzen, batez ere, horma eta harresietan. Lore txiki bakartiak ditu. Espezie honen barietate batzuk lorezaintzan erabiliak izan dira.

ES *Cimbararia*  
 EN *Ivy-leaved Toadflax*

UOMAMEUAIUAA BIZ

